

### Ostirala

2018ko agorrilaren 3a  
IX. urtea  
364. zenbakia

www.iparraldeko hitza.eus  
ieh@hitza.eus

**2 Italia Txiki** Gipuzkoa eta Lapurdi arteko italiarrak bildu nahi dituen elkarteak sortu dute

**3 Sasoilariak** Udako langileen eskubideak biltzen dituen aplikazioa sortu du CFDT sindikatuak

# IPAR EUSKAL HERRIKO HITZA



**Laborantzaren  
datuekin,  
argazkia**

Euskal Herriko Laborantza Ganberak 2015eko laborantza datuak aztertu ditu; batetik, datu orokorrekin behatu die xeheki, eta, bestetik, 99 etxaldetako kontuei, gastu eta irabazietan oinarrituz • 4-5



**Ipar Euskal Herriko Hitza**k udako oporrak hartuko ditu, eta agorriean ez da gehiago argitaratuko. Ondoko zenbakia irailaren 7an publikatuko da, eta, ordutik aitzina, astero izanen da eskuragarri BERRIAREKIN batean, kioskoan eta etxean harpidetuak direnzentzat.



Donostiako Tabakaleran egin zuten Italia Txiki elkartearen aurkezteko aperitifa-kontzertua. HITZA

Lapurdi eta Gipuzkoa artean bizi diren italiarrak biltzea da Italia Txiki elkartearen helburua. Lehen urteurrena beteko du elkarteak udaren bukaeran.

## Italia txiki bat Euskal Herrian

### Ekhi Erremundegi Beloki Hendaia

**H**endaia Gelateria Walter izozki dendan egin dute hitzordua Francesco Roncaglia, Magdalena Di Luzi eta Marina De Franceschik. Oraintsu arte ez zuten elkar ezagutzen; Gipuzkoan eta Lapurdin bizi diren italiarrak biltzeko xedea duen Italia Txiki elkarteak batu ditu. Duela urte bat sortu zuten elkarteak, eta maiatzaren egun zuten aurkezpena, Donostiako Tabakaleran. Hirurogei bat kide ditu gaur egun.

Kafe banaren inguruan elkartu dira. «Bo, kafea dei badaiteke. Egiatzko kafe espres bat edan ahal izatea falta zait Italiatik», erran du Roncagliak, irribarre batekin. Ez da hori, hala ere, Italia Txiki elkartearen sortzera bultzatu dituen argudio nagusia. «Elkarte kultural gisa definitzen gara, Italiako hizkuntza eta kultura zabaltzeko helburua duena. Italiarrez gain,

Italiar interesa duen orori irekitzen dizkiogu ateak, baina, gure artean italiaraz jarduten dugunez, beharrezkoa da hizkuntza maila bat izatea», azaldu du. Oraingoan, ekitaldi bat baino gehiago antolatu dituzte: liburu aurkezpenak, film proiektioak, eztabaidak... Eta ikasturte berriarekin jardueraren erregular bat abiatu nahiko lukete. Elkartearekiko interesa erakutsi duten 150 pertsona kontatu dituzte orain arte, ingurune oso ezberdinetakoak.

Adin ezberdinekoak izanik ere, ibilbide parekoa dute hiru italiarrek. Maitasunaz iritsi ziren Eus-

kal Herrira hirurak. Orain dela hamabi urte Francesco Roncaglia. «Biziki harrera ona egin zidaten nire emaztearen ingurukoek, baina anitz kostatu zitzaidan lana aurkitzea». Orain autonomo gisa ari da lanean, diseinu grafiko eta komunikazioaren arloan. Magdalena Di Luzik orain dela 11 urte egin zuen Euskal Herrirako bidea. Garaiko bere bikotekidea euskalduna zen, musikaria bera bezala, eta Frantziako Estatuaren artekin duen intermitente estatusak eta Euskal Herrian kultur arloan aritzeko aukerak erakarri hartu zuen erabakia. Gaur egun trikitia jotzen aritzen da, besteak beste, Saltoka dantzaldi taldean; euskara ikasten ere hasi da Baionako Gau Eskolan. Marina De Franceschik duela 31 urte utzi zuen Italia Andaluziara joateko, eta orain dela 11 urte iritsi zen Euskal Herrira. «Euskaldun batekin ezkondua naiz; nire etxean euskal kultura bizi dut», adierazi du. Euskara bereganatua du aspaldi.

## 60

### ELKARTEKO KIDEAK

Urte bakar batean, Gipuzkoa eta Lapurdi arteko 60 italiar bildu ditu Italia Txiki elkarteak, arduradunek jakinarazi dutenaren arabera. Orota, 150 batek agertu dute elkartearen informazioa jasotzeko interesa.



**Italiar interesa duen orori irekia da, baina beharrezkoa da hizkuntza maila bat izatea»**

**Francesco Rocaglia**  
Italia Txiki elkartearen presidentea

**«Ohartu nintzen italiaraz aritzea kostatzen zitzaidala. Totelka hasten nintzen, edo akatsak egiten nituen»**

**Magdalena Di Luzi**  
Italia Txiki elkartearen kidea

**«Maila pertsonalean anitz ekarri dit. Bazen denbora bat italiarrak ezagutzeko gogoia nuela»**

**Marina De Franceschi**  
Italia Txiki elkartearen kidea


De Franceschi, Roncaglia eta beste italiar batzuen arteko topaketatik dator Italia Txiki elkartearen ideia. «Lapurdi eta Gipuzkoa artean bizi diren italiarrak bildu nahi genituen, elkar ezagutu, gure hizkuntza mintzatu eta elkarrekin planak egiteko», esplikatu du. «Ohartu ginen modu iraunkorrean elkartu ahal izateko lokal bat behar genuela, eta horregatik elkarte kultural bat sortu genuen, ofizialki Gipuzkoa mailan erregistratua dena; baina guk argi genuen Euskal Herri maila zela eta gure helburua da Ipar Euskal Herrian bizi diren italiarrak biltzea»

### Hizkuntzari atxikimendua

Donostiako Tabakaleran egin zuten aperitifa-kontzertu baten bidez egin zuten elkartearen aurkezpena. «Italiarrak ongi ikusiak gara Euskal Herrian, eta orokorrean oso harrera ona egin digute denei. Nire inguruko italiar guztiak biziki ongi integratu dira», azaldu du Magdalena Di Luzik. Gainerako biek ere lekukotasun bera egin dute, baina guzkiek aitortu dute denbora batera Italiarekin, italiarrek, italiarrek funtsean, harremana egiteko beharra sentitu zutela. «Nik beti atxiki dut lotura Italiarekin, gaur egun modu anitz ditugulako komunikazio tresnekin», kontatu du Di Luzik. «Nire flash-a Italiara sartzarekin izan zen. Erregularki joaten naiz nire familia ikustera, eta ohartu nintzen italiaraz aritzea kostatzen zitzaidala. Totelka hasten nintzen, edo akatsak egiten nituen. Ni biziki hunkitua nintzen, lotura handia dudalako italiar hizkuntza eta kulturarekin, eta neure buruari erran nion 'kasu!'; elkartearen bidez beste italiar batzuekin harremana eginez, lotura hori berreskuratu dut».

Elkartearen sortzeara ekin italiar pila bat ezagutu duela dio Roncagliak, «biziki pertsona onak». Behin baino gehiagotan antolatu dituzte ateraldiak elkarrekin. «Maila pertsonalean ere anitz ekarri dit. Bazen denbora bat italiarrak ezagutu eta gauzak elkarrekin egiteko gogoia nuela». Tabakaleran egin zuten aurkezpena gogoan du De Franceschik. Magdalena Di Luzik Italiako kantu ezagunak eman zituen beste batzuekin batera. «Italiar nintzela sentitu nuen».

Ikasturte berriarekin batera kide gehiago erakarri nahi litzukete elkartera. Webgune bat sortu dute bere jardueraren berri emateko eta sare sozialetan ere aktibo dira.



Edozein sakelakotan deskarga daiteke CFDT sindikatuak prestatu duen Ma Saison aplikazioa. HITZA

CFDT sindikatuak sakelako aplikazioa sortu du udako sasoiaren eginen duten langileentzat, beren eskubideen berri izan dezaten. Ordu gehigarrien kontaktak sortu ohi ditu gatazka gehienak.

## Sasoilarien eskubideak sakelan

**Ekhi Erremundegi Beloki** Baiona

**M**a Saison sakelako aplikazioa sortu du CFDT sindikatuak, udan lan egiten duten sasoiarietako haien eskubideak jakinarazteko helburuarekin. Uda guzian zehar gazteen artean zabaltzeko lan egiten dute zenbait ekitaldiren bidez. Erronka nagusia, udako langileek egiten dituzten lan ordu guziak ordaindu diezazkietela.

Kanpaina bereziak egiten dituzte urtero langile sindikatuak, uda garaian lan prekarioak egiten dituztenei informazioa eta aholkuak banatzeko. Gazteak izan ohi dituzte bereziki jomugan, gehienetan horiek izan ohi direlako eskrupulurik gabe aritzen diren nagusi batzuen biktima. Anitzek beltzean egiten dute lan, eta maiz arazoak ukaiten dituzte lanean pasatutako ordu guziak ordaindu izateko. «Frantzia mailan

sortu dugun sakelako aplikazio bat da, bereziki gazteei begira egina baina udan lan egiten duen edonorentzat baliagarria izan daitekeena», adierazi du Michel Larralde, Ipar Euskal Herriko CFDT sindikatuko idazkari nagusiak.

Izan CFDT ala beste sindikatuak, oinarriko eskubideak esplikatzeko dituzten liburuxkak banatu ohi dituzte hondartzetan eta gazteak ibili ohi diren lekuetan, uda garaian. Aurten, tresna bat gehiago izanen du Frantziako sindikatuak: Ma Saison aplikazioa. «Iruditu zaigu gazte publikoarengana iristeko ezinbestekoa zela horrelako tresna bat sortzea, gaur egun, edonork duelako sakelakoa berekin. Gainera, orain arte banatzen genituen liburuxkak urterik urtera zaharkitzen ziren, datu andana bat aldatu zirelako. Aplikazioaren bidez, momentuan momentuko aldaketak egiten ditzaitez». Apple eta Android telefonoetan

urririk deskarga daitekeen aplikazio honetan, orain arte liburuxka formatuan banatzen zuten Sasoilarien Gida sartu dute CFDT sindikatukoek. Langile baten oinarriko eskubideak zerrendatzen ditu, arloz arlo: lan kontratua, kontratu bukaera, langabezi-

**Anitzek beltzean egiten dute lan, eta maiz arazoak ukaiten dituzte lanean pasatutako ordu guzieren ordaina jasotzeko**

**Larralderen arabera, lan auzitegiko prozedurek luze irauten dute; gazteentzat ez da aukera egokia**

rako eta prestakuntzarako eskubideak, etxebizitza eskubideak... Azkenik, CFDTren kontaktua eta sindikatuak antolatutako gertakariak ere bildu dituzte.

**Orduen kontakteta**

Michel Larralderen arabera, azken urteetan egoera anitz hobetu

da eta nagusiek gehiago zaintzen dute arauen barnean egotearena: «Izan lan ikuskaritzak ala sindikatuak presio handia egin dugu, hedabideetan ere anitz aipatzen da, eta uste dut egoera hobetzen ari dela». Jan lasterreko ostalaritzan ikusten du arazo nagusia,

urte batetik bestera egituren jabeak aldatzen direlako anitzetan.

Orduen kontaktetan da arazo nagusia Larralderen arabera. «Langileari ordu kopuru bat ematen diote kontratuan, eta ordu gehigarriak beltzean ordaintzea hitzemanen diote. Baina hilabete

bukaeran jasotzen dutenak ez du bat egiten egindako orduekin». Horregatik, ordu kopurua langile bati izenpeaztea aholkatzen du sindikatuak. «Orduak behar bezala ordaindu ez dituen nagusi baten kontra Lan Auzitegiko prozedura bat abiatu nahi baldin bada, ezinbestekoa da langileak

lanean pasa dituen ordu zehatzak aurkeztu ahal izatea. Horretan, lagungarria izan daiteke lankide baten lekukotasuna», esplikatu du Larralde. Eta, orain, baita Ma Saison aplikazioa ere, lanean egindako orduak kontatzeko tresna bat dakarrelako barnean.

Larralderen arabera lan auzitegiko prozedurek luze irauten dute eta emaitza ez da segurra; gazteentzat ez da aukera egokia, hilabete bukaeran egindako lanaren saria eskuratu nahi dutelako. Horregatik, sindikatuarengana jotzea aholkatzen du Larralde, nagusiari presioa eginez mereztakoa jasotzeko. «Behin baino gehiagotan gertatu zaigu nagusiaren eta langilearen arteko bitartekaritza lana egin beharra, lanean egindako ordu gehigarriak behar bezala ordainduak izan ez zirelako. Guk argiki erraten diegu: edo hitz eginez konpontzen dugu, edo epailetara joan behar dugu. Normalean lehen hautua nahiago izaten dute».

# Ipar Euskal Herriko laborantzaren datuak txosten batean bildu dituzte

Euskal Herriko Laborantza Ganberak egin duen datu bilketarekin, lehen aldiz Ipar Euskal Herria soilik aztertzen da • Ekoizpen anitzen gastuak, kargak eta irabaziak xeheki aztertu dituzte etxaldeetan

Joanes Etxebarria Ainhiza

Bi zati ditu EHLG Euskal Herriko Laborantza Ganberak aurten plazaratu duen txostenak. *Ipar Euskal Herriko Laborantzaren Datu Ekonomikoak* izena eman diote, 2015eko datuak direla zehaztuz. Lehen partean, Ipar Euskal Herriko laborantzaren kontuak dira aztergai, lehen aldiz. Bigarren partean, 99 etxaldekako kontuak xeheki aztertu dituzte.

«Ipar Euskal Herriko etxaldea zertan dabil? Zer ematen du, zer da haren ekoizpenaren balioa eta zeintzuk dira ekoizpen hori egiteko gastuak?». Hori da, Mixel Berhokoirigoinen erranetan, ideia nagusia. Badira lehendik ere plazaratu izan diren gisa bereko datu azterketak, baina eskualde edo departamendu mailakoak, ez Ipar Euskal Herrikoak.

«Hutsune bat bete behar zen», gehitu du EHLGko lehendakari ohiak. Horretarako, «emaitza batzuk guhaurrek bilduz, beste batzuk estrapolatuz, ahalik eta zientifikoena baina gauza batzuk dedukzioz eginez» landu dutela zehaztu du, «ez baitzen erreferentziarik, behar zen sortu zer-bait».

Patxi Iriart ari izan da buru-belarri datu bilketan, Ainhizeko beste langile batzuekin: «Metodologia aldetik, ardatzak errespetatuak dira, baina ez ditugu beti datu onak; konposizio lan bat egin behar izan dugu», dio, zehaztuz azkenean «ikuspegi orokorra» ateratzen dela. Bigarren partean, berriz, etxaldeen kontabilitatean sartu direnez, «hori erre-ala» dela gehitu du.

## Emaitzak eta ondorioak

Laborantzaren emaitza gordina jakin dute, adibidez, lan horri esker. Karga estrukturalak kendu gabe –ez baitute elementurik kalkulu hori egiteko–, 123 milioi euro da laborantza sailaren emaitza gordina. Horrekin zenbat jende bizi den behaturik agertu zaie Ipar Euskal Herrian, Frantziako Estatuari konparatuz,



2015eko laborantzako datu ekonomikoak aztertu ditu Euskal Herriko Laborantza Ganberak. ROBERT THURIN

irabazi gordinak apalago direla aise. Langile bakoitz 27.000 euro dira hemen, eta laborari bakoitz 56.000 euro dira Frantzian. Aldiz, hektarea bakoitzeko emaitza doi bat hobea dela ageri da: 1.043 euro hemen, eta 952 euro Frantzian.

Berhokoirigoinek argitu du datu horrez egin duten interpretazioa: «Erran nahi du hemengo etxaldeetan –gutxi gorabehera Frantziako Estatuaren batez bestekoaren erdia dira handitasunean– jende doblea bizi dela eta kasik erdia irabazten dela. Hektarea bakoitzeko, aldiz, gehixeago; erran nahi du hektareen eragin-



**Ipar Euskal Herriko etxaldea zertan dabil? Zer ematen du, zer da haren ekoizpenaren balioa? »**

Mixel Berhokoirigoin  
EHLGko bulegoko kidea

**«Metodologia aldetik, ardatzak errespetatuak dira, baina ez ditugu beti datu onak; konposizio lan bat egin dugu»**

Patxi Iriart  
EHLGko langilea

kortasuna ez dela proportzionala hektarea kopuruari. Hektarea kopurua handiago eta hektarea bakoitzaren eraginkortasuna txikiagoa da», dio, eta zehaztu joera orokorraren interpretazioaz ari dela.

Alta, Europako laguntzak hektarea kopuruari edo abere kopuruari lotuak dira. Berhokoirigoinen ustez, txosteneko datu horiek politikoki eragiteko balio lukete: «Beste aterabide bat litzateke kontuan hartzea laguntzak jendea biziarazteko direla; ematen bagenitu lanpostu bakoitzeko, koherentzia luke. Laguntzak banatzeko manera oso etxalde han-

diak dituztenak abantailatzen dituen sistema da, eta, hala ere, etxalde txikien efikazia hobea da hektarea bakoitzeko».

Horregatik, datu horiek eta xehekiago sail bakoitzeko emaitzak biltzen dituen txostena politikoan tresna izatea espero dute bere egileek, bereziki Euskal Elkargoari so eginez. «Nahi dugu Euskal Elkargoak lan hori har dezan erreferentzia gisa, tresna gisa, bere politika egiteko». Berhokoirigoinek beharrezkotzat ikusten du beste urte batzuetan ariketa errepikatzea, urte bateko datuak interesgarri bilakatzeko baitira epe luzeagoko perspektiban.

## 99

### AZTERTUTAKO ETXALDEAK

2015eko laborantzaren ekonomi argazkia egiteko, EHLGk 99 etxaldekako datuak aztertu ditu. Bi sail nagusitan sailkatuak izan dira: ekoizleak, eta ekoizle eta transformatzaileak direnak.

## %80

### KARGAK, PAGATZEKO

Ardi esnearen ekoizpenean, etxaldeko irabazi guztien (diru laguntzak barne) %80 hainbat karga pagatzera bideratzen da. Tasa hori urtez urte emendatuz doala zehaztua da txostenean.

## %65

### BEHI ESNE TRANSFORMATUA

Txostenean, behi esnearen saila egiteko lau etxalderen datuak aztertu dituzte. Hiruk esnea dute ekoizpen bakarra, eta denek esne horren parte bat saltzen dute; %65, berriz, transformaten.

## 3.700

### ETXALDEAK, OROTARA

Ipar Euskal Herrian 3.700 etxalde daude. 2015eko laborantza datuak biltzeko, hainbat erakundek plazaratzen dituzten datuak ere bildu ditu EHLGk; ardi esnearen behatokiarenak hala nola.

# «Gazteak pusatzen dituzte geroz eta esne gehiago egitera»

Daniel Barberarena • Laboraria

Iholdiko laborariak bereziki ardi esnedunen saila segitzen du Euskal Herriko Laborantza Ganberan. Txostena eskuetan harturik, azterketa orokorrago bat egin du, betiere urteetako joerei garrantzia emanez.

J. E. Maule

EHLGren txostenean laborantza aipatzen da orokorki, baina bai eta sailez sail ere. Ardi esnedunak bere pisua badu Ipar Euskal Herriko panoraman.

**Zer diferentzia bada EHLGk egin duen txostenean eta beste erakunde batzuek aztertzen dituzten zenbakien artean?**

Beste erakundeek departamendu mailan ateratzen dituzten zenbakiak 130 bat etxalderekin eginak dira; gurean, berriz, ardi sailean, 60 bat dira bakarrik. Gure zenbakiak Afog elkartetik datoz; aldez, departamendu mailako datuak beste erakunde batetik ere ateratzen dituzte. Departamendukoak izan ala ez, dena den, ez dut pentsatzen diferentzia handia izaten ahal denik, zeren ekoizle kopururik handiena hemen baita, Euskal Herrian. Laborantza Ganberaren dokumentua hartzea inportanta da memento bateko argazkia ukaiteko, nahiz argazki hori beti aldatzen den.

**Orduan, zer da zehazki lan horren interesa?**

Lehen argazki bat da, lehen aldia egin dela Euskal Herrian. Ez behar bada urte guztiz, baina bost edo hamar urte guztiz egin behar da ikusteko zein diren joerak, zeri buruz joaten garen. Paueko Laborantza Ganberak ez du hala-korik egin, edo egin duzelarik Akitaniako datuak ziren. Guretzat, inportanta da zenbaki horien ukaitea, esnetegiek ere jakin dezaten egiazki zein den egoera. Laborari bat ez delarik heltzen gutxieneko irabazira, behar dute jakin. Galdegiten delarik prezioen emendatzea, ez da uste gabetarik. Ikus dezatela kargak gora ari direla. Politikariek ere ikusi behar dute, hautu politikoak egiteko.

**Ardi sailean izan ote da ezustekorik, ala uste zenuenaren zentzutik doaz?**

Nire ustez, zentzu beretik joan dira, bai. Ez da izan uste gabekorik ateratzen diren zenbakietan. Baina bistan da, zenbakiak ateratzen direlarik, guk gure komentarioak egiten ditugu, eta beste batzuek eginen dituzte berenak. Batzuetan, besteen komentarioak desberdinak izaten ahal dira. 2015eko departamenduko zenbakiak hartzen badira, erratan ahal da hein berean garena.

**Zer diote datuek?**

Ikusten da esnea beti emendatzen dela; ber denboran, etxaldeen lur eremuak ere emendatzen ari dira. Langileriaren aldetik, berriz, bada problema bat zinez; geroz eta jende gutxiago da etxaldeetan. Hori, bistan da, ez da urte

**«Arrangura da gazteak ikustea; lehen bizi ginen trankil 180 ardiekin, orain 320 ardiekoa da batzuek bestekoa»**

**«%35 edo %37 ez dira heltzen behar diren irabazietara, eta horietan badira laborari handiak ere»**

bateko argazkian ikusten. Luzara ikusten da, hamar urtetako datu batzuei behatuz. Erran nezake joera horri buruz doala.

**Orduan, badira geroz eta etxalde handiagoak geroz eta langile gutxiagorekin?**

Hori da, geroz eta etxalde gehiago eta langile gutxiago, eta horrek espezializazio bat ekartzen du. Orain, plantatzen diren anitz gazte abiatzen dira alimaleko proiektu batzuekin. Har bagenez duela hamabost edo hoge urte nola zen: gazte bat plantatzen zelarik bere bizitzako proiektua egiten zuen, hamar urtez oinarritua. Poliki-poliki egiten zituzten gauzak, inbertsio eta oro. Aldiz, orain, maileguak oro bost urte

barne egin behar dira. Horrek ekartzen du plantatzen diren gazte andana batek hartzen ahal dituen laguntza guztiak hartu dituela. Maileguak, lehen, 75.000 euro inguru baldin baziren, orain gazteak ikusten ditugu 200.000, 300.000 edo 500.000 euroren inbertsioak egiten. Gazte horiek ez dute ezagutu 90eko urteetako krisia, baina iduri zait heldu zai-gula krisi bat; uste dut murrubaten kontra abian garena. Ardi sailean galtzen ditugu 40 bat etxalde urte oro; alimalekoa da!

Bestalde, luzerako argazkiari so egitean ikusten da karguak emendatzen ari direla; lehen, %30 inguruan ziren, eta, orain, %117ra helduak gara. Erran nahi du esne kantitateak handituz ere gure irabaziaz ez direla emendatu. Laguntzak erdiestuz, gazte batek behar ditu 14.000 euro urtean, eta, gaur egun, %36 azpitik ari da. **Datu horiengatik diozu murrubaten kontra joatearena?**

Arrangurarik handiena da gazteak ikustea: kantitateak ari dira emendatzen eta emendatzen eta parean behar dira aterpeak, kabalak... Lehen, bizitzen ginen trankil 180 ardiekin; orain, 320 ardiekoa da batez bestekoa. Geroz eta gehiago entzuten da gazte batzuek ez dutela etxeko segida hartu nahi, hori kontuan hartu behar da. Ez badute aski irabazirik ateratzen ahal, nahiago dute beste nonbaitera joan.

**Presioa handia da gazteentzat?**

Bai. Lehen etxalde bat kudeatzeko mobilizatzen zen sosa ez zen baitezpada handia, orain egiten duzularik 300.000 euroko artegi bat, alimaleko karpalak dira. Herentziak egiteko orduan horiek guztiak kontuan hartzen dira... Alde batetik, hori, eta sozialki ere, ene Iholdiko herrian, ikusten dut auzoak urruntzen ari zaizkidala. Baditut lau seme-alaba, eta bik laborantza ikaske-



HITZA

ta eginen dituzte. Beren arrangura da: «Norekin ariko gara bihar lanean?». Ni instalatu nintzelarik duela 30 urte, auzoak banituen; orain, urruntzen ari dira. Etxaldeak handiago, esne gehiago, eta jendeek ez dute aizinarik laguntzera joateko. Puntualki badira laguntza batzuk, baina hainbeste ardi pertsona batentzat anitz dira, jakinez behiak ere badirela ondoan. Gogoetak pitzarazten ditu.

**Erran duzu datuen interpretazio desberdinak posible direla.**

Mintzatu naiz esnetegi bateko buruzagi batekin, eta bera ez zen arrangura. Laborariaren aldetik zenbakiak apaltzen ari dira, baina berak zioenez, «beharrik, gazteak geroz eta esne gehiago egiten ari dira; kontent gara». Pusatzen dituzte geroz eta esne gehiago egitera, baina egiten duzun esne hori biziki kostatzen da. Ardi batek normalki bazkatuz, eman dezagun, 140 pinta emanen ditu; gainerateko pintak gehiago kostatzen dira [kanpoan bazkak erosi behar direlako]. FDSEArekin izaten ahal den diferentzia hor da. Hasiak dira aldatzen, orain autonomia aipatzen dute, lehen ez zuten aipatzen. Guk beti

aipatu dugu. Etxeko bazkek in aritzea ez da beti posible, Banka kaskoan edo Santa Grazin ez duzu artorik egiten ahal eta bortsatua zara erostera. Esne gehiago egiteko bazka gehiago erosi behar da, geroz eta gehiago, eta, azkenean, zenbakietan ez dira hobeki. Beharrik, primak [diru laguntzak] badirela, horiek gabe ezin gintezke bizi. Gure irabazien %60a da usu; autonomiarik ez delarik, %100. AOP araudien [kalitate labelak] alde ona da jendea behartua dela bazkak egitera eta erostera hemen berean.

**Baduzu ideiarik zer argazki ekar lezakeen urte batzuen buruan eginen litzatekeen ondoko datu bilketak?**

Uste dut azken bizpahiru urteetan —ez dakit segituko duenetz— transformazio anitz egiten dela, geroz eta gehiago. Zerendako? Gehiago irabazteko. %35 edo %37 ez dira heltzen behar diren irabazietara, eta horietan badira laborari handiak ere. Esnea zuzenean saltzen dutenetan, ez da uste izan behar urtean 20.000 pintaz behe-rra ari direnak direla ez direnak heltzen; badira 60.000 edo 80.000 pinta egiten dituztenak eta ez direnak heltzen.

## Besta bai, borroka ere bai?

zugari maitatu dut, Aitor, euskarari buruz idatzirikoa: gaur egungo Ipar Euskal Herrian nekez eginen duela euskaraz bizitzeko hautua euskaldun gisa pairatzen duen zapalkuntzaren kontzientziarik ez duen hiztunak. Erresistentziara bideratzen dugun indarra erai-kuntzara bideratu beharra. Azterketa bat euskaraz pasatzeko eskubidea eskuratzea edo postu batzuk gehiago erdiestea garai-pen taktikoak direla. Gure hizkuntza politikaz eta hezkuntzaz erabakitze ahalmen faltan dartzala ausia. Euskara bertan bizitzeko proiektuarekin lotu eta Ipar Euskal Herrian hobeki bizitzeko beste elementu bat izan dadila. Euskaraldiaren potentzialtasuna eta hizkuntza politika ausarten beharra... Guztiz bat egiten dut zurekin, eta hainbeste maitatu dut nola eman dituzun hitzetan, ideia horiek berriz honat ekarri nahi izan ditut.

Udako bestez galdegin didazu, ordea, eta noan egin dizkidazun galderei erantzutera. Hasteko, iruditzen zait gaur egun bestek

betetzen duten aisaldi eremu hori behar dugula, eta guk nahiko genukeen bezalako izan dadin garrantzitsua dela. Gure aldarrikapen eta balioak mahai gainean jartzeko parada ematen digu, eta baita, hein batean, jenderen kontzientzian eragiteko ere, parte ez diren batzuk gure mundutortora erakartzeko.

Baina uste dut garaia dela besta eredu birpentsatu eta birplanteatzeko. Lehen erroko galdera pausatzea ezinbestekoa da: zergatik sentitzen dugu besta egiteko beharra? Nondik dator behar hori? Uste dut gure egunerokotasunari dagoela lotua, gure ikasketa eta lan ereduari, gure sozializatzeko eta harremanak izateko moduei. Hor badira hutsune batzuk bestera eramaten gaituztenak, gure eguneroko estresa eta ongizaterik eza alkohol edo drogetan askatu edo lasaitzera eta besteekin harremanak izatera, aniztatan besta giroko osagaiengatik, ez hain molde sanoan.

Besta masifikatuz galdegiten zenedan, baina uste dut gure gaur egungo edozein bestarentzat ba-



**ELEKETA**  
Maddi Sarasua



Aitor Servier



**Zergatik sentitzen dugu besta egiteko beharra? Nondik dator behar hori? Uste dut egunerokotasunari dagoela lotua, gure ikasketa eta lan ereduari, gure sozializatzeko eta harremanak izateko moduei**

lio duela honek, nahiz besta masifikatueta ezaugarri batzuk areagotu. Ipar Euskal Herriko gazteriak bere *militantziako* gogo eta denbora gehien bestak antolatzen inbertitzen du izan besta batzorde zein gaztetzeeetan. Ez nioke horri *militantzia* deituko, gizarteko arazoak plazaratu bai baina aldatzeko duen aukera urriagatik. Bestetan, balio eta aldarrikapen gehien-gehienak modu sinbolikora mugatzen dira. Alta, gure militantziak duen diruarekiko dependentsiaz, usu kontzientzia minimo bat dutenak besten garrantziaz pentsatzen bultzatzen dira, militantzia-zen izenean, txosnetan lan txandak egin edo dirua inbertitzera etor daitezten, modu horretan borrokarri ekarpen handi bat egin diotela sentitzera eramanez. Ez dut uste hala denik. Beste ikusmen diekan eragite gaitasun handiena besten antolakuntzan dabilzanen arteko harremanetan da, borondatezko lanean, kolektiboki pentsatuz elkarlanean eraikitako harreman eredu.

Genero auziari dagokionez, uste dut mila protokolo, aldarrikapen ekitaldi, sentsibilizazio mezu eta salaketa egin ditzakegula baina besta eredu hau bera dela genero indarkeria emateko aukerak biderkatzen dituen. Genero zapalkuntza jendarteko

arazo bat da, eta egunerokoan borrokatu beharreko zerbait, baina izateko eta harremanak izateko modu hori gure baitan dago, eta horrekiko egin beharko genuke lan. Ez genukeela izatea nahi, eta genero zapalkuntza gertatzen den aldiro kezatu eta horren aurkako aldarrikapenak egin partez, badela onartu eta zapalkuntza hori egin ez dadin baldintzak sortu behar genituzkeela uste dut. Besta eredu honek, eraso aurkako mila mezu egonagatik, ez ditu erasorik izan ez dadin baldintza egokiak sortzen.

Hainbat borroka komunitatean, alkohola debekatzea hautatzen dute, hain justu, emazteen aurkako erasoak areagotzen dituela ikusten baitute. Izateko eta harremanak izateko moduak landu eta aldatu behar ditugu egunerokoan, baina horiek ez dira egunetik bihar munera aldatuko, eta anaritean, agian, zapalkuntza eta eraso horiek gerta ez daitezten baldintza egokiak pentsatu behar ditugu. Argi da ez dela erraza izan inguruan ditugun eredu guztiengatik, baina uste dut harremanak izateko beste gure batzuk pentsatu behar ditugula, beste izateko eta harremanak izateko molde batzuk eraikitzeko. Gaztetzeeek inportantea lukete jokatzeko horretan; ea egiazki nahi dugun eta egiten asmatzen dugun.

### Irudia • Baiona



## Bigarren harresi bat besten kari

Baionako bestak igaro dira joan den astean, bost egunez. Aurtengoak bereziak izan dira, lehen aldikoz sarrera ordainduak martxan jarri baititu herriko etxeak. Hain zuzen ere, larunbat goizetik igandeko gauerdia arte Baiona tipian eta handian sartu ahal izateko, zortzi euroko eskumuturreko ordaindu behar izan dute bestazaleek. Guztira, 210.000 eskumuturreko banatuak izan dira; horietatik 45.000, urririk, baionar eta langileei. Jean-Rene Etxegarai pozik da dispositiboaz, eta beste urteetan horrela segituko dela adierazi du. ISABELLE MIQUELESTORENA



«Dena presidente karguaren gain uztearen eta botere guziak Eliseoan kontzentratzaren gehiegikeria erakusten du 'Benalla aferak'»

**Max Brisson**  
LR alderdiko senataria

## 19

### BAXENABARREKO MUSIKALDIAK BETEKO DITUEN URTEAK

Agorrilaren 8tik 13ra iraganen da aurtien Baxenabarreko XIX. Musikaldia, Baigorri. Organoa, pianoa, akordeoia, musika barrokoa, kantu lirikoak, sorkuntza, euskal kultura... denarik ikusi eta entzuteko aukera izanen da Orgue en Baigorri elkarteak antolatutako ekitaldian.

### Irailaren 7a arte bakantzak hartuko ditu 'Ipar Euskal Herriko Hitzak'

**BAIONA** • Urtero bezala, agorrilean ez da gehiago *Ipar Euskal Herriko Hitzak*-ren zenbakirik argitaratuko. Irailaren 7an hasiko da berriro, eta ostiralero izanen da irakurgai, etxean harpidetuntzat -24 euroan da urteko harpidetza-, eta kioskoan BERRIA egunkariarekin batera.



**Ipar Euskal Herriko Hitzak** irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **Ipar Euskal Herriko Hitzak** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Lisses karrak, 3, 64100 Baiona. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: [ieh@hitza.info](mailto:ieh@hitza.info).

Biarritz • Festilasai



## Festilasai jaialdia izanen da asteburu honetan

Biarritzeko Mizanbu gaztetxeak eta skateparkak elkarlanean sortu zuten musika festibala, Festilasai, pixkanaka handitzen joan da azken urteetan, eta Lapurdi kostaldeko udako ekitaldi nagusienetako bat bilakatua da. Aurten ere izen handiko talde andana ageri dira prestatu duten egitarauan: gaur, Le Peuple de L'herbe, Pastors of Muppets eta Opium du Peuple arituko dira 18:00etatik aitzina; bihar, La Yegros, Le bal Chaloupe eta Party Seche & Friends taldeak 18:00etatik aitzina; igandean, berriz, zikiroa antolatuta dute. ARITZ LOIOLA / FOKU

### MUSIKA

**BAIONA** Pottoroak Klubeko gizonetako koruaren udako kontzertua: Euskal Herriko eta munduko kantuak.  
● *Asteartean, 19:00etan, La Poterne plazan.*

**BAIONA** Haiz'Egoa peñako abesbatzaren kontzertua.  
● *Asteazkenean, 21:00etan, Espainiako Atean.*

**EZPELETA** Esne Beltza eta Z'Anonymes taldeen kontzertuak.  
● *Bihar, 22:30ean, merkaturako plazan.*

**HAZPARNE** Mendi Xolan abesbatzaren kontzertua.  
● *Asteartean, 20:45ean, elizan.*

**KANBO** Arraga abesbatzaren kontzertua.  
● *Gaur, 21:00etan, elizan.*

**KANBO** Antton Larrandaburu eta Bitxiloreak taldearen kontzertua, eta, ondotik, Dj Jager.  
● *Bihar, 22:00etan, pilota plazan.*

**KANBO** Niko Etxart eta Hapa Hapa, Frikun, eta Edantza taldeen kontzertuak, herriko besten kariatara.

● *Igandean, 19:00etan, Sorhainde plazan.*

**KANBO** Exak taldearen kontzertua, eta dantzaldia Herri'to taldearekin.  
● *Asteartean, 22:00etan, Sorhainde plazan.*

### HERRIKO BESTAK

**ARBONA** Aperitifak, zikiroa, elkartearen gaualdia, kontzertuak, pilota partidak, meza...  
● *Gaurtik astelehena arte, herriko hainbat gunetan.*

**BAIGORRI** Elkartearen zintzur bustitzea, muskuilu eta patata frijitu afaria, Doctor Mephistoren kontzertua.  
● *Gaur, 19:00etatik aitzina, trinketean.*

**BAIGORRI** Arno eta garagardo dastaketa, haurren jokoak, zikiroa eta dantzaldia Kontrabanda taldeak alaiturik.  
● *Bihar, egun guztian, herriko hainbat gunetan.*

**BAIGORRI** Dantzarien ibilaldia, herrien arteko jokoak eta dantzaldia.  
● *Bihar, egun guztian, herriko hainbat gunetan.*

**BASTIDA** Herriko besten irekitzea. Muskuilu eta patata frijitu afaria Samain taldeak animaturik.  
● *Gaur, 20:00etan, herriko etxean.*

**BASTIDA** Arrantza lehiaketa, arno, xerri eta gasna dastaketa, mutxikoak, kantuak, eta dantzaldia Aistrika taldearekin.  
● *Bihar, egun guztian, herriko hainbat gunetan.*

**BASTIDA** Meza, entzierroa, sagardotegi bazkaria, eta Bodega gaualdia.  
● *Igandean, egun guztian, herriko hainbat gunetan.*

**EZPELETA** Braderia, aperitifa, zikiroa eta dantzaldia Patcha Mama taldearekin.  
● *Gaur, egun guztian, herriko hainbat gunetan.*

**EZPELETA** Ball trap lehiaketa, Ezpela dantza taldearen ibilaldia, petanka lehiaketa, eta kontzertuak.  
● *Bihar, egun guztian, herriko hainbat gunetan.*

**EZPELETA** Pilota partidak, kantaldia Herritarrak Kantuz taldearekin, Mutxikoak Saltoka taldearekin, eta, eguna amaitzeko, Suzko zezena.

● *Igandean, egun guztian, herriko hainbat gunetan.*

**KANBO** Herriko besten irekidura, 10,5 kilometroko bestetako lasterketa, eta zikiroa.  
● *Gaur, 18:00etatik aitzina, herriko guneko ezberdinetan.*

**KANBO** Txaranga, erromeria, mus txapelketa, pilota partida eta kontzertuak.  
● *Bihar, egun guztian, herriko hainbat gunetan.*

**KANBO** Herritarren eguna. Meza, mutxikoak, dantza ikusgarria, eta kontzertuak.  
● *Igandean, egun osoan.*



**Kanalduderen artxiboak ikusgai.** Urteetan bildu dituen artxiboak ikusgai emanak ditu Kanaldudek bere webgunean. Uda garaia egokiak izan daitezke, iraganeko irudiei so, garaiko oroitzapenak freskatzeko.



**EUSKAL IRRATIAK**

*Gaur*  
**19:00.** Uda Tturtur: Kano ibilaldia Koldo Nagusiarekin.  
*Bihar*  
**7:45.** Donostiako Klasikoa.  
**9:30.** Haurrek egin saioa.  
*Igandean*  
**12:00.** Berrisaila.

### ERAKUSKETAK

**HENDAIA** Dantza izpiak, Gabrielle Duplantierren argazki erakusketak.  
● *Bihar arte, Mendi Zolan.*

### BESTELAKOAK

**BIDAXUNE** Bidaxune: iragan birkonposatua, Mosaique elkartearen ikusgarri historikoa.  
● *Gaur, bihar eta igandean, 19:00etan, gazteluan.*

**MAULE** Jean Bordaxarrek idatzitako Belako zalduna pastorala.  
● *Igandean, 15:30ean.*

Euskararen  
erakunde  
publikoa



Office public de  
la langue basque

EEPK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



HITZA

## «Fisikoki oso kirol exigentea da, eta teknika ikasi behar da»

**Guruzne Azpiroz • Lapurdi Arraun Taldeko entrenatzailea**

Orain dela urte bat osatu zen emakumezkoentzat Ipar Euskal Herrian den lehen arraun taldea, eta Guruzne Azpiroz da entrenatzailea. Taldea eraiki eta iraunkortzea dute helburu nagusia.

### Ekhi Erremundegi Beloki

Iazko ikasturte hasieran osatu zuten Lapurdi Arraun Taldeko emakumezkoen taldea. Azarotik, Guruzne Azpiroz (Oiarzun, 1984) hartu du entrenatzaile ardura. ETE ligan ibiliko dira, emakumeen arrauneko bigarren ligan.

### Noiztik ari zara arraunean?

2005. urte inguruan hasi nintzen, San pedron. Orduan sokatiran aritzen nintzen, eta taldeko batzuekin animatu ginen arraunean entseatzera, baina arraunean aritzeko gogoz baino gehiago fisikoki prestatzeko asmoz. Urte hori egin nuen; gero kanpora joan nintzen ikastera, eta pixka bat utzi egin nuen. Garai hartan ez zen emakumezkoen trainerurik, eta beti gelditu zitzaidan traine-  
rria probatzeko gogo hori.

Hortik urte batzuetara, nire lagun batek aipatu zidan traine-

ruan hasi zela eta nik ere entseatu behar nuela. Pasai Donibaneko taldean izena eman nuen harekin batera, eta bost urte eman nituen han.

### Nola iritsi zara Lapurdiko Arraun Taldera?

Iazko azaroan edo. Haiek lehena gogoz hasiak ziren entrenamenduetan, ez zuten entrenatzailerik eta niri eskaini zidaten. Animatu nintzen.

### Lehen aldia da nesken arraun talde bat badela Ipar Euskal Herrian...

Nahiko zaila izan da taldea osatzea, arraunlari gehienentzat lehen aldia baita arrauna egiten dutena. Lapurdiko lau arraun talde elkartzuta osatu dute kluba. Iaz, mutilen taldea aurkeztu zuten, eta biziki ongi ibili ziren; klub horietan ala horien inguruan ziren neskak ere elkartu ziren, eta behin taldea osatu zuten. Gehiengo

kirolaria da, baina ez dute sekula arraun egin.

### Gizonen ondoan isilpean gelditu ohi da emakumeen kirola. Zain da zuen egoera?

Argi da ez gabela maila berean eta beti zailagoa izaten dela emakumeen kirola gizonen kirolaren parean jartzea. Nik talde honi baietz errateko arrazoietako bat hori izan zen: ni arraunean hasi nintzanean ez zen emakumezkoen trainerurik; hasi ginenean ez zen traineru asko, eta traineruen artean diferentzia handia zegoen. Beti kostatzen da emakumezkoen kirola bultzatzea. Ikusi nuenean beste traineru bat gehitu zitekeela emakumezkoen ligara, eta, gainera, Ipar Euskal Herriko lehen taldea, iruditu zitzaidan proiektu gisa oso polita zela emakumeen kirol hau ere bultzatzeko.

**Urrian hasi zineten entrenatzen.**

### Nola joan da urtea?

Kontuan hartu behar da talde berri-berria dela. Arraunean badira bi gauza biziki inportanteak direnak: taldekide guzietan arraunean jakitea, eta elkarrekin arraun egiten jakitea. Gauza erraza iduri du,

### «Erranen nuke, orokorrean, taldearen jarrera euskarari dagokionez biziki ona dela. Ez dakitenak ere saiatzen dira»

baina biziki zaila da: guk deitzen diogu blokea lortzea. Lan asko gure hasieratik. Fisikoki oso kirol exigentea da, teknika ikasi behar da...

### Zer helburu markatu duzue?

Guk badakigu atzealdetik ibiliko gabela, beste taldeek denbora gehiago daramatelako eta esperientzia gehiagoko arraunlariak dituztelako. Beraz, gure helburua saillkapeneko azken postuetatik

gorago kokatzea da. Estropadaz estropada gero eta gorago igotzea da gure helburua.

### Nolako giroa da taldean?

Gogo handiak dituzte, baina, betikoa. Materialak, ligetan izena emateak... azkenean gauza horiek guzietan diru asko eskatzen dute, taldeak ere erosi behar izan zituen arropak. Lau klub daude elkarrekin, eta denen artean lan handia egin dute dirua biltzeko: komertzioetan eta beste leku anitzetan ibili dira laguntza jasotzeko. Aurtengoa uste dut moldatuko dugula, baina, beti horrela ibili behar izaten gara, laguntza eskatzen.

### Zer babes izan duzue?

Kazetariak etorri zaizkigu behin baino gehiagotan. Telebista frantsesean erreportai luze bat egin zuten gure taldeari buruz, irratietan ere aipatu gaituzte. Alde horretatik, uste dut nahiko harrera ona izan duela. Nik uste dut neskak pozik direla, nahiz eta ez zaien anitz gustatzen kazetarien aitzinean mintzatzea. Baina nik uste dut orokorrean kasu egin digutela eta behar bezala aipatu gaituztela.

### Mintzatzea aipatzen duzula, zein da taldeko hizkuntza?

Nik frantsesik ez dakit. Beraz, nahasketa bat egiten dugu. Taldean badira neskak euskaraz dakitenak, badira euskaraz ez dakitenak, frantsesek denek dakite... Normalean nik bi hizkuntzatan egiten dut, gaztelaz eta euskaraz: batean ulertzen ez bada, bestean.

Erranen nuke, orokorrean, taldearen jarrera euskarari dagokionez biziki ona dela. Nik ere, askotan ohartu gabe, gauza anitz euskaraz erratan ditut, eta orduan haiek ere gauza anitz ikasten dute ohartu gabe. Baina oso ikuspegi baikorra dute, eta euskaraz dakitenak ere saiatzen dira besteak behartzen eta bultzatzen euskarari ikasi dezaten.

### Hego Euskal Herrian indar handiagoko arraunak. Eredu bat dira zuentzat?

Nik Pasai Donibaneko neskekin badut harremana, azkenean nire azken taldea izan baitzen. Biziki harreman ona dut haiekin, eta niretzat oraindik nire taldekideak dira. Baina urteak joan ahala beste taldeetakoekin ere badugu harremana; azken batean ez gara hainbeste ere. Pasai Donibaneko arraunkera ezagutzen dut gehien, eta hori da Lapurdiko Arraun Taldera ekarri dudana.